


Europar Batasuna

Euskadiko gazteen iritziei buruzko ikerketa

2022



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Ikerketaren metodologia


❖ Kuantitatiboa, inkestaren bidez

- Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 30 urte bitarteko gazteak
- Lagina:** 4.046 gazte
- Galdetzeko bidea:** online
- Landa-lana:** 2022ko martxoaren 11tik 15era
- Lagin-errorea:** \pm % 1,5 (konfiantza-maila % 95,5 eta $p=q=0,50$ izanik)
- Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa:** Gazteen Euskal Behatokia
- Inkesten bilketa eta datu-basearen sorrera kudeatzea:** Ingartek Consulting S.L.

❖ Kualitatiboa, eztabaida-taldean bidez


- Parte-hartzaileak:** 16 eta 31 urte bitarteko 15 gazte, bi taldetan bananduta
- Noiz egin diren eztabaida-taldeak:** 2022ko urtarrilaren 26an eta 27an
- Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa:** Gazteen Euskal Behatokia eta Ingartek Consulting S.L.

EBrekiko ezagutza, interesa eta atxikimendua




GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

EB-27ko kide diren herrialdeak bisitatu dituzten Euskadiko gazteen ehunekoa.



Frantzia 78,4
Portugal 41,4
Italia 40,9
Alemania 31,8
Herbehereak 21,3
Belgika 19,6
Txekiar errepublika 11,5
Irlanda 11,3
Austria 9,8
Polonia 8,4
Hungaria 8,0
Grezia 6,3
Kroazia 5,7
Suedia 4,8
Danimarka 4,5
Finlandia 3,0
Malta 2,9
Eslovenia 2,9
Eslovakiako errepublika 2,8


Badakizu zenbat herrialdek osatzen duten Europar Batasuna? (%)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Gazteen argakiak 2016


Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen kopuru zuzena dakiten gazteen ehunekoa askoz handiagoa da 2022an aurreko urteetan baino.

Zenbateraino zaude interesatuta Europar Batasunari buruzko gaietan? (%)




Gazteen % 59,0 oso edo nahiko interesatuta dago Europar Batasunari buruzko gaietan.

Zure ustez, zenbateraino ulertzen dituzu Europar Batasunari buruzko gauzak,
bere egitura eta funtzionamendua? (%)




Gazteen % 33,8k soilik ulertzen du Europar Batasunaren egitura eta funtzionamendua.

How much, if anything, do you feel you understand about the European Union?(asko edo nahikoa ulertzen dutela diotenen %)




Euskadiko gazteak Europako batez bestekoaren azpitik dago Europar Batasunaren egitura eta funtzionamendua ulertzeari dagokionez.

1 eta 10 arteko eskala batean, zenbateraino sentitzen duzu Europar Batasunari, bere politikiei eta erakundeei buruz informatuta zaudela? (1-10)




0 eta 10 arteko eskalan, 2022an batez bestekoa 4,1 da, hau da, Euskadiko gazteak ez dira informatuta sentitzen Europar Batasunari, bere politikiei eta erakundeei buruz. 2001ean 15 eta 29 urte bitartekoen batez bestekoa 4,5 zen.

Zenbateko lotura sentitzen duzu Europar Batasunarekin? (%)



Gazteen erdiek baino gutxiagok sentitzen dute lotura handia edo nahikoa Europar Batasunarekin (% 42,9).


Zenbateko lotura sentitzen duzu Europar Batasunarekin? (%)



EB-27-ren datuen iturria: European Commission, Desk Research European Youth 2021


Euskadiko gazteek Europar Batasunarekin duten lotura Europar Batasuneko gazteek, batez beste, adierazitakoa baino txikiagoa da (% 42,9 eta % 62, hurrenez hurren).

Europar Batasuna desagertuko balitz, asko sentituko zenuke, berdin izango litzateke ala asko poztuko zinateke? (%)




Nahiz eta gazte gehienek EB-rekiko lotura handirik izan ez, ia gazteen erdiak asko sentituko luke Europar Batasuna desagertuko balitz (% 43,6 %); % 3,3 soilik poztuko litzateke.

Ondoren Europar Batasunari buruzko baieztapen batzuk azaltzen dira.
Zein dago zure iritzitik hurbilen? (%)



Gazteen laurden bat bakarrik dago Europar Batasunaren egungo funtzionamenduaren alde (% 26,9).


Which of the following statements regarding the European Union is closest to your opinion? (EB-ren egungo funtzionamenduaren aldekoen %)



Europar Batasunaren eta bere egungo funtzionamenduaren alde daudenen ehunekoa antzekoa da Euskadin (% 26,9) eta EB osatzen duten 27 herrialderen batez bestekoan (% 28).


Zuretzat zer da Europar Batasuna? (%)

(Erantzunen ehunekoen batuketa 100 baino handiagoa da, nahi beste erantzun eman ahal zirelako)



Proposatutako kontzeptuen artean, Euskadiko gazteen iritziz EB zer den ondoen irudikatzen duena hauxe da: bidaiatzeko, ikasteko eta lan egiteko askatasuna.

Zure ustez, zelako eragina izan dezakezu Europar Batasunari dagozkion erabaki, lege eta politika garrantzitsuetan? (%)




Gazteen % 18,5ek soilik uste du eragin dezakeela Europako politketan.

Europako politiketan eragitea eta horien eraginpean egotea




GAZTEEN EUSKAL
OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

How much of a say do you feel you can have over important decisions, laws and policies affecting the EU as a whole? (eragin txikia edo batere eraginik ez dutela uste dutenen %)




Europar Batasunean ere gazte gehienek uste dute Europa mailako politiketan izan dezaketen eragina txikia edo bat ere ez dela.

Eta, zure ustez, Europako erakundeetan, hala nola, Europako Parlamentuan edo Batzordean, ezartzen diren legeek eta politikak zelako eragina dute zugaran? (%)




Euskadiko gazte gehienek ustez (% 74,1), Europako politikak eragin handia edo nahikoa dute beraien gain.

2024an Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira berriro. Uste duzu bozkatu egingo duzula hauteskunde horietan? (%)



Hamar gaztetik seik uste dute bozkatu egingo dutela 2024an izango diren hurrengo Europako Parlamenturako hauteskundeetan (% 59,8).


Badaude gazteei zuzendutako Europako programak edo Europako funtsekin finantzaturako programak. Izan al duzu hauen berri? Eta parte hartu al duzu horietako baten batean? (%)




Gazte gehien-gehienek ezagutzen dute Erasmus+ (% 92,7), baina ez gazteei zuzendutako Europako beste programak. Edozelan ere, programa horietan parte hartu duten gazteak gutxi dira.

Gazteriari zuzendutako Europako programak ezagutzea eta bertan parte hartzea

2022 Gazteriaren Europako Urtea izendatu dute.
Entzun al duzu ezer horretaz? (%)




Eta Gazteriaren Europako Urtearekin zerikusia duen ekitaldiren batean parte hartu duzu edo parte hartzeko asmoa duzu?



Hamar gaztetik batek bakarrik daki 2022 Gazteriaren Europako Urtea dela (% 11,3) eta, dakitenen artean, % 5,3k horrekin lotutako ekitaldiren batean parte hartu du edo parte hartzeko asmoa du.

EB-k hainbat gaitan egindako kudeaketaren balorazioa

0 eta 10 arteko eskala erabiliz, zure ustez, nola kudeatu du edo kudeatzen ari da Europar Batasuna ondoko arazo bakoitza? (0-10)



Euskadiko gazteek oniritzia ematen diote Europar Batasunaren kudeaketari Covid19-aren pandemiari eta gazteriaren arloan egindako lanari dagokienean, baina ez proposatutako beste gaitan egindako kudeaketari.

EB-k hainbat gaitan egindako kudeaketaren balorazioa


Oro har, 0 eta 10 arteko eskala erabiliz, zenbateko puntuazioa emango zenioke Europar Batasunak gazteriaren arloan egiten duen lanari? (0-10)

Gazteriaren arloan egindakoa 5,2

“Yo creo que se le da muy poca importancia en general en la política a todos los niveles, eh, local, provincial, comunidades autónomas, estatal y europeo y de todo a la juventud. Y la Unión Europea yo creo que es de las que más se salva por así decirlo que tiene, por ejemplo, el European Youth Parliament y cosas así y sitios donde puedes aportar tus ideas y tal y sí que hacen como más eventos en el sentido de que la población joven participe en las políticas, pero yo creo que es una cosa que siempre se queda un poco coja. Porque bien, hacen cosas como aquí el Consejo de la Juventud que estamos participando en ello, pues sí, pues las encuestas y así están bien, pero luego por ejemplo estaría encantado de participar de forma más activa pues en las cosas y que nos preguntasen o qué opinamos porque yo creo que muchas veces se olvidan, siempre nos miran a los jóvenes y, aún más con la pandemia y así, como personas irresponsables que se gastan el dinero de sus padres y que hacen poco o nada y, en realidad, somos el futuro de Europa y el futuro de las naciones y así, y se nos da muy poca importancia”. (Eztabaida-taldeetan egindako komentarioa. Jatorrizko hizkuntzan utzi da).

EB-k izan beharko lituzkeen lehentasunei buruzko iritzia

Zure iritziz, ondoko gaietatik, zeintzuei eman beharko litzaieke lehentasuna Europar Batasunean?



Euskadiko gazteen iritziz, EB-ren lehentasunak hauek izan beharko lirateke: pobrezia eta desberdintasun ekonomikoaren kontra borrokatzea eta klima-aldaketaren kontra eta ingurumena babestearen alde borrokatzea.

INKESTAREN EMAITZA NAGUSIAK

Euskadiko gazteen erdiek baino gehiagok dakite Europar Batasuna 27 herrialdek osatzen dutela (% 64,9) eta Europar Batasunari lotutako gaitan interesa dute (% 59,0), baina heren batek bakarrik ulertzen du EB-ren egitura eta funtzionamendua (% 33,8).

Europar Batasunarekiko lotura duten gazteak erdiak baino gutxiago dira (% 42,9); hala ere, % 3,3 soilik poztuko litzateke EB desagertuko balitz.

Gazteak kritikoak dira Europar Batasunarekin: % 26,9 soilik dago bere egungo funtzionamenduaren alde eta hainbat gaitan izandako kudeaketa baloratzean, bakarrik Covid19-aren pandemiaren kontrako jarduera eta gazteriaren arloan egindako lana lortzen dute gazteen oniritzia (5,3ko eta 5,2ko puntuazioak, hurrenez hurren, 0 eta 10 arteko eskalan).

Gazte gehienek EB osatzen duten edozein herrialdetara bidaiatzeko, ikasteko eta lan egiteko askatasunarekin lotzen dute Europar Batasuna (% 73,7), eta agian horregatik gazteriari zuzendutako programen artean gehien ezagutzen dutena Erasmus+ da (% 92,7), nahiz eta gazte gutxik parte hartu duten programa horretan (% 16,0).

INKESTAREN EMAITZA NAGUSIAK

Hamar gaztetik batek bakarrik daki 2022a Gazteriaren Europako Urtea dela (% 11,3).

Gazte gehienen iritziz, EB-n ezarritako erabakiek eragina dute beraien bizitza pertsonaletan (% 74,1); baina gazteen % 18,5ek soilik uste du Europako erabakietan eta politiketan eragin dezakeela.

Hamar gaztetik seik (% 59,8) 2024an izango diren Europar Batasuneko Parlamenturako hauteskundeetan bozkatuko dutela diote.

Gazteen ustez, Europar Batasunak lehentasuna eman beharko lieke pobrezia eta desberdintasun ekonomikoaren kontra borrokatzeari (% 54,9), bai eta klima-aldaketaren kontra eta ingurumena babestearen alde borrokatzeari ere (% 51,8).

Euskadiko gazteak Europar Batasuneko gazteen batez bestekoaren azpitik daude EB-rekiko atxikimenduari dagokionez, bai eta bere funtzionamenduaren ulertzeari dagokionez ere.

EZTABAIDA-TALDEEN EMAITZA NAGUSIAK

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten gazteek, oro har, ikuspegi baikorra dute Europarekiko, baina nahiko kritikoak ageri dira erakundearekin. Parte-hartzaile guztien iritziz, Europar Batasuna beharrezkoa da Europan bakea babesteko eta gazte askok diote trankilago sentitzen direla Europar Batasunaren barruan egoteagatik, beraien ustez Europar Batasunak abantaila asko, eta horien artean herritarrentzako babesa, dakartzalako.

Europar Batasunaren kide izatearen alde positiboen artean, azpimarratzen dute mugak ez izatea, mugitzeko askatasuna eta erraztasuna, osasuna eskura izatea eta Erasmus+ moduko programak, parekorik gabeko aukera ematen baitute.

Gazteen iritziz, Europar Batasunak segurtasuna eta eskubideak dakartza herritarrentzat, baina baita betebeharrak ere, eta kide diren herrialdeen eskumena eta erabakimena mugatzen ditu. Europako Parlamentuan oso erabaki garrantzitsuak hartzen dira, herritarrengan eragina dutenak, eta EB osatzen duten herrialde guztiek bete behar dituzte.

Hala ere, Europar Batasunak maila guztietan duen eragin handiaren aurrean, gazteek ezjakintasan handia erakusten dute Europar Batasunari eta beren lanari buruz. Eztabaida-taldeko partaide gehienek EB-k ikusgarritasun eta gardentasun handiagoa izan beharko lukeela diote. Horren adibide argia da Gazteriaren Europako Urtea ez ezagutzea, gazteek beraiek ere ez baitute ezagutzen Europar Batasunak beraien alde jarritako ekimen hau.

MILA ESKER

